

FEDERICO KRUTWIG SAGREDO.—*Ortziren zaldiak*. Haranburu-Editor, S. A. Donostia, 1983.

Hirukoitzetik lehena, naiz eta Belatzen baratza sailaren 7.a osatu.

Bertako Ula eta Uta flamendarrak dira. Hoiiek Burgira datoz, zeren sorgin denbora baita, itxura denez, eta erotikaren hegaletan *chambre d'amour*-en antolakizuna kontatuz hasten da. Egia esan, ulertuko bada eraskinez datorren hiztegiara maiz begiratu beharra aurkituko dugu, irakurketa etenaz lehendik berez dakarren ulerkaiztasuna sakonago nabarituz.

Izenetatik ohar gindezke nor zein den; baina, hala ere, hizlariak, elkarrizketak mailaz gora doazen neurrian heleno hitzez gehiago zerbitzen dira; eta, alderantziz, mailaz behera, bizkaierara ez ezik «Bidebarrietako euzkerea lebienera».

Erhaztunaren jasotzailez bukatuko da.

Honek bere hiztegiak gainera beste eraskin bat dakar, bertan, geographi izen zerrenda dator eta oso beharrezko ikusten dugu zerbait ulertu nahi duenarentzat.

FEDERICO KRUTWIG SAGREDO.—*Garaziko oihanaren thau-ma*. Haranburu-Editor, S. A. Donostia, 1983.

Orain, Ertarotik *Renaissance*-ra sartu gara. Eskozian sortua Flandes, Venezia eta Erromatik Baionara iraganen da. Horietan ikusia eta ikasia kontatu eta erakutsiko du. Besteak beste, arte konzeptuak ere bai, gizarte giroaren barna erregela batzutan jarri nahirik. Hemen ere erhaztuna izanen da nolabaiteko hariaren lokarri, beste eleberrien jarraipenez. Hizkuntza arruntetik irten nahi du, hortarako greko lexikoz anitz baliaturik. Baina, nonbait, hori ezta aski eta elkarrizketetan esal-